

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

1922

IRAGARKIA, 2025eko apirilaren 22koa, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Bizkaiko lurralde-ordezkararena, zeinaren bidez berriz ere jendaurrean jartzen baita egunera-tutako proiektu hau: baterien bidez energia biltegitatzeko «BESS Lezama» izeneko instalazioa jartzea Lezamako udal-mugartean (Bizkaia).

Martxoaren 31ko 48/2020 Dekretuan xedatutako ondorioetarako (2020-04-24ko EHAA) –dekretu horren bidez arautzen baitira energia elektrikoa ekoizteko, garraiatzeko eta banatzeko instalazioen administrazio-baimenaren prozedurak– eta Sektore Elektroari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 53. artikuluan (2013-12-27ko BOE) xedatutakoarekin bat etorritik, berriz ere jendaurrean jartzen da eskatutako aurretiko administrazio-baimenarekin eta eraikitzeke administrazio-baimenarekin lotutako instalazio elektrikoa, instalazioaren kokapenaren aldaketa dela eta.

Espedientea: 48-GE-Y-2025-00004.

- Eskatzailea: BESS Development 4 SL.
- Kokapena: Lezamako udal-mugartea.
- Exekuzio-materialaren aurrekontua, guztira: 9.291.963,13 euro.
- Helburua: baterien bidez energia biltegitatzeko sistema berria ezartzea, bertan dagoen 30 kV-ko sarera konektatuta.
- Instalazioaren ezaugarriak: Ignacio Olabarri Lasa industria-ingeniariak 2025eko martxoan sinatutako proiektuan adierazitakoak, espedientean daudenak.
- Eskaeraren helburua: aldeztu aurreko eta eraikitzeke administrazio-baimena.

Eta hori guztia argitara ematen da nornahik proiektua azter dezan Sail honen Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzan (Bilboko Concha Jeneralaren kalea 23, 5. solairua), dagokion udalean edo url honetan: <https://www.euskadi.eus/energia-eta-meategi-inguruko-proiektuei-buruzko-informazioa/web01-a2energi/eu/>

Bidezko iritzitako alegazioak –bi kopia– dagokion lurralde-ordezkaritzan aurkeztu beharko dira, hogeit eguneko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Bilbao, 2025eko apirilaren 22a.

Industria Administrazioako Bizkaiko lurralde-ordezkaria,
MARÍA JESÚS MARKAIDA URIARTE.